

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Luxiano Juaristi Alberdi Atanillo*

*Azkoitia  
Gipuzkoa (1932)*

Aurkibidea



## Biografia



Azkoitian jaio zen 1932an. Gurasoak kaletarrak zituen eta bera ere beti kalean bizi izan da. 7 urterekin osasun-arazoak izan zituen biriketan eta ez zen eskolara joaten. Azkoitian bertan hasi zen lanean abarketak egiten. Gero Soraluzean ibili zen kanoi-fabrika batean, baita Azkoitiko "Epelde y Larrañaga" lantegian ere. Atanotarren familiakoa izanik, txikitatik ezagutu izan du pilotaren mundua eta "Atano X" edo "Atanillo" bezala ezagun egin zen. Pilotako bere garai onenetan Garzia Ariño, Barberito, Soroa eta Retegirekin ibili zen, besteak beste. 42 urterekin utzi zuen pilota. Azkoitian ezkondu zen eta 3 seme-alaben aita da.

## Zintak

### AZK-023

- **Proiektua:** Azkoitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2008-04-15
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

### AZK-024

- **Proiektua:** Azkoitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2008-04-15
- **Iraupena:** 2 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

## Pasarteak

### 1. Azkoitian jaioa 1932an

- **Erref:** AZK-023/001
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

<p>Azkoitian jaio zen 1932an. Gurasoak ere azkoitiarrak zituen, ama kaletarra eta aitaren aldekoak baserrikoak. Bost anai-arrebako familia zuen.</p>

**Transkripzioa**

-Hasteko, izena, abizena eta noiz jaio zinen esaten badidazu?  
-Luciano Juaristi Alberdi. Diecinueve de diciembre del treinta y dos.  
-Eta nun jaio zinen?  
-Azkoittin.  
-Kalean?  
-Bai.  
-Kaletarra zera?  
-Kaletarrak gera.  
-Hementxe bertan?  
-Ez, beste etxe baten jaixo giñen, aitte ta ama bizi zien tokixan.  
-Nungoak ziren, azkoitiarrak?  
-Aitte ta ama azkoitiarrak.  
-Kalekoak?  
-Ama kalekoa zan eta aitte berriz, aitte ´re kalien jaixotakua, baiñe gure aittite zan basarritik etorritakua. Basarrixen bizi zien eta handik etorri zien kalera.  
-Eta zenbat senide ziñeten?  
-Ba gu giñen bi arreba eta hiru anai.

**2. Arrandegi bateko errekadista**

- **Erref:** AZK-023/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

<p>Ez du gogoan eskolara joan zenik. Zazpi urterekin Azkoitiko mediku ezagun batengana eraman zuten eta birika bat zikinduta zuela esan zioten. Eskola utzi eta bere burua zaindu behar izan zuen. Arrandegi baterako enkarguak eramaten aritu zen umetan.</p>

**Transkripzioa**

- Eta eskolara eta txikitan?  
- Hortxe jo dezu punto fuertena. Ba ni esateko ez naiz akordatzen eskolara jundakoik, zegatik zazpi urte nittula edo, zeoze banula, banula zeoze eta mediku batena eaman nittuen hamen, Azkoittidxen, Artzuaga zan hamengo mediku onen samarra orduan, ta harek ba radidxuen ikusi ta pulmoie mantxaute neukela, ta eskola ta batez eta jan hobeto eta deskantsua; osea ke itxurie daonez haure izengo zan orduko medikamentua gaixuk sendatzekua, zeaittik sanaterixuek eta ´re hamen ´e bazeon bat, San Martiñen edo.

- Zer?

- Petxutiken esaten zigun orduan pulmoie mantxatzen zigonai, eta haidxek ematen zittuen leku batea, eta hamen zeon, hamen relojue daon toki hontan, ba San Martiñen, sanatoixu o esaten zion, eta han ematen izkoen jatekuek eta bere lo ta dana ta, han ibilliko zin. Ba nei esan zin hoidxe. Basarri batea o eamaten banittuen arnasa ona hartu, jan hobeto, deskantsue, ta nere eskolak han gastau zin. Ordun egon nintzen, ez dakit be, bi urte edo hola, eta gero amak bialdu nittun egun batin hamen arrandeira, arraixe ekartzera o, antxoak edo ez dakit ze izango zien, eta han esan tzien: "eamango al dezu holako tabernatara?" ta; eaman nun eta gero etorri nintzenin beste leku batea eta, etxeako arrain pixket emango ziin, ta "bihar etorriko al zera?", ta hala pasau nittun han beste bi-hiru urte edo lau urte. Eta nere eskolak han akaau zin.

- Gaixo zenbat denbora pasatu zenun?

- Gaixo, gaixo, ni neu ez naiz akordatzen ohien ta egondakoik. Baiñe deskantsue, ta geo gaiñea medikuek ´e ikusi nittun egunen batian pelotan edo, ta ez eitteko ero amai errita, ba deskantsu behar nula eta hola. Gero Donostira aman lagun batzun bittartez eaman nittuen, han Urbina edo bazan, ta harena, ta haren bittartez medikue, ta haren bittartez ba gero sendauko nintzen. Nik eztakitt iñok esan zin sendaute neunik edo ez neunik, baiña. Gure eskolak han akabau zin. Handik aurrera izen zan betik zeoze lana eittia.

### 3. Eskola partikularrean ibilia

- **Erref:** AZK-023/003
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

#### Laburpena:

<p>Eskola partikularrean Azkoitiko gizon batengana joan zen. Ez da ondo oroitzen, baina ez zuela askorik ikasi dio.</p>

#### Transkripzioa

-Eskolara ez zinen batere jun ordun?

-Gero partikular edo pixket ibili nintzen, gerora pixket, baiñe eze haundirik ez.

-Nun ibili ziñen?

-Hamentxe, Azkoittin; hamen bazan Euzkitze, oin telebistan pelota-ta ematen dittu ba? Horren, ba, ez dakit, tio izengo zan edo. Edo aittitte zan, ez dakit seguruik. Harek ematen zun partikular illuntzetan eta, ta hantxe pixket ibili nintzen.

-Zenbat urterekin hori?

-Ezta, ez naiz ondo akordatzen, baiñe gaztetan oso.

-Ze ikasten zendun han?

-Ba, eze asko ez naiz akordatzen, baiña sumarretik aurrea ez dakit asko ikisi genduen.

### 4. Bizikleta alkatu eta mojei arraina eramatera

- **Erref:** AZK-023/004

- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:07:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Lanbideak » Negozioak, dendak

#### **Laburpena:**

Arrandegitik aberatsei etxera eraman ohi zien arraina Luxianok. Bizikleta alokatu eta mojei arraina eramatera joaten zen. Arraina gutxi jaten zuen orduan; bi gizonen aipamena egiten du.

#### **Transkripzioa**

-Esan dezu arrandegian aritu zinela lanean?

-Bai. Arrandeixen enkarguak eitten, orduen ematen zan arrandeire diru pixket zeuenak edo tabernak ta, enkargatzen zeuben arrandeire ta handiken bialtzen zan baten batekin, eamaten zan baitte etxe partikularretara ´re, bazien Azkoittin orduen sasoe hartan ondo xamar bizi zienak, jeneralien izete zan, eta haixena etxera eamaten ziun arraixa eskatzen zebera.

-Eta ze joaten zinen, oinez?

-Bai, bai. Gero zera bai juten nitzen, gero atzenengo orduen, arrandeixe eguerdi aldera juten zanin, orduen legatzan kokotie esaten zigon, gutxi jaten zeuben orduen, eta buzten antza ´re bai, haixek gutxio jaten zin, edo mendreska atunena, eta orduen haixek danak otarra batien ipini ta monjataa eamaten zin, baiñe monjataa etzan debalde amaten e, eamaten zan ba, merke bai, besten aldien merke, eta orduntxe juten nintzen, bizikleta bat alkilau itten zeuben leku batian, eta biziklita haure hartu ta monjataa, pixkat apartiao egoten zan haure, eta haixei eamatea juten nintzen, bai.

-Eta dirurik ordaintzen zizuten?

-Ba pezetan bat bi edo hiru bai, baiñe haundiñe zan ordun jatekue eamatie etxera, eta jatekue ematen zien. Osea ke ematen zun, ba lehen esan dizutena, monjataa eamaten genun tipokua, zea, kokote-antza legatzana eta buzten antza eta pusketak sobratzen zienak, haixek etxeako ematen zittuen eta; orduen gauze haundixe zan etxea eamatie danantzat jatekua.

-Arraia orduan gauza preziatua izango zan.

-Bai. Preziatue. Orduen, nik eztakitt, jaten gutxi zekixen. Azkoitixen jaten zekixenak ni akordatzen naiz orduen, gizon bat, "Makarra" esaten zixuen, oiñ Ibarria ta taladruek dauzken hoixen aitte zan, eta oso aurreratue zan gauzek eta etaatzen eta bere gauzek eitten, kotxe zaharrekin berrixek in eta zea ta, beti aurreako, zea hortako adelantua bazun, esaten zeuben geiñera argixe ´re Azpurutxon edo baserrin batin lelen berak ipiñi zula urekin edo zeoze, eta holakuek. Eta jaten, ni beti akordatzen naiz, gehixenak zekixenak Azkoittin haure eta bestie Patateronekue Ziriako bazan azpeittiar bat, hamen surtidoretakuekin ezkontuta, ba haixek bixek zin orduen iñrk, danak despreziau edo bajuenak gelditzen zien legatz-kokote-a mendrexka-ta jaten zittuenak, gero fama haundixa hartu zebernak.

## **5. Arraina dirudunen eskura soilik**

- **Erref:** AZK-023/005
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:07:38. **Bukatu:** 00:08:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Negozioak, dendak

**Laburpena:**

3 urte inguru egin zituen arrandegiko lanetan. Goizean 8 eta erdietarako iristen zen arraina trenean eta Luxiano ordurako joaten zen bila. Arraina dirudunen eskura zegoen soilik.

**Transkripzioa**

- Eta zenbat denbora pasa zenuen han?
- Ez naiz akordatzen, baiñe hiru bat urte edo pentsatzen det pasau nittula.
- Eta gustora?
- Ba gustoko lana zer zan´e ez [giñugun] ordun, hori ein in ber zala eta ein. Goizin jaikitzi pixket kostatzen zizten ohetik, zortzitterditan aillegatzen zan trena eta ordun arraidxe ekarri eta ordun jun ber izeten zan hara eta beti presaka ibiltzen nintzen.
- Trenen ekartzen zuen?
- Arraidxe trenien ekartzen zeбен. Bertako nausixe Donostira jutēn zan bezperan, ta berak apartau ta arraixek hartzen zittun eta gero hurrungo goizin trenien etortzen zan zortzitterditan.
- Azkoiti inguruko etxe pila bat pasauko zittuzun.
- Ez. Ez eizu pentsau etxe asko. Etxiek oso kontautakuk zin, zeatik e ondo samar bizi zana, zeatik diru gutxi zeukenak ez zeuken "bialdu izek" eta berak ipinittako prezixue izeten zan eta gauze danak. Eta gutxi zeukenak bera junde´re nahiku lan bazun ordun.

**6. Anaiarekin bikote modura pilotan**

- **Erref:** AZK-023/006
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:08:39. **Bukatu:** 00:12:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Pilota

**Laburpena:**

Arboladi batean elkartu ohi zen lagunekin. Pilotan jokatzen zuten gehienek. Luxianoren osabak eta aita pilotan ibiliak ziren. Osaben aipamena egiten du. Kontsejupean, elizpean eta halakoetan aritzen ziren pilotan. Ez zuten maisurik izan. Luxianoren anaia batek afizionatu modura jokatzen zuen eta txapelketa batean Luxiano eraman zuen bikote modura; orduan atera zen plazara.

**Transkripzioa**

- Lagun koadrillarik bazenuen jolaserako?
- Bai, bai. Lagunek bagiñuzen, bai. Lagunek oso lagun haundixek giñen eta. Geiñera zeoze genunien, dana jatekue izeten zan ordun, danak e, baten bat izengo zan lagunēn bat hobetxuau bizi zana, baiña bestela gehixegi bete bee (gabe) ibiltzen giñen jaten, ta ordun zeoze baldin bazan, ba lagunēk, e, geuk tortillie eiñ edo zeoze eiñ, baiña ertenda, parkia esaten zigon hamen, bazan arbolategi bat eta hara jun eta, gaztaiñerriek hurrungo ta hola ibiltzen giñen.
- Ze zer jolas egiten zenuen lagunekin?
- Ba guk pelotarako genun afizixue pixket eta hortxe ibiltzen giñen, pelotie

zan gure zera; fubolien ibilliko giñen pixket baiña. Gehixena pelotan ibiltzen giñen, eta geñera herri hontan saso hoixetan eta jentie gehixena pelotan ibiltzen zan. Fubolien ere bai baiña pelotan gehixen.

-Nola hasi zinen zu pelotan?

-Hasi..., hauxe eitten zan hamen eta halaxe ekin giñun.

-Baina etxean bazenuen baten bat pelotaria?

-A bai! Osabak. Eta aitte´re bai. Aitte´re, nik ez nun pelotan eta ezautu, baiñe ezkondu aurretik pelotan Eibarren eta jokatzek ekin zizona, baiñe etzan izengo punte-puntekue eta orduen bizimodue etaratzeko lana ein ber eta gero pelotiai laga ein zixon lana eitteko. Baiña osabak eta beti pelotan ezautu ta. Geñera osaba izen zan onena, oso ona. Bat ona, Hirugarrena (III), et bestiek´e Setimo (VII) ta, Cuarto (IV) ta, Segundo (II) ta onak, oso onak. Asko.

-Eta non egiten zenuten pelotan?

-Pelotan? Edozein lekutan. Kontzejupin gehixena, Kontzejupe hori zan oso politte, baiñe orduen e libre baldin bazegon eta zeuk nahi baziñun pelotan mutilkoskorrak eta, haundixauak etortzen zienin fuera!, eta bialtzen giñuzen, eta orduen ba beste leku batera. Baiña baitte, elizako pareta bat bazan gure etxe aurrin, eta han´e bai. Edozein lekutan eitten zan pelotan.

-Eta maisurik bazenuten?

-Ez.

-Ez zen? Zeuen kasa.

-Bai, geure kasa.

-Eta noiz hasi zinen pelotan partiduak jokatzek, serio.

-Serixo, neu nintzen oso mutil txikixe nintzen, oso txikixe. Orduen pelotan poliki eitten nula esaten emen tzeben, baiñe anaixek eta jokatzek zeben pelotan, eta geñera afizionau jokatzek zun batek, eta bere, zaharrena zan anaixe, eta bere lagune zun ordun Zumarrako bat, Santz edo esaten zixoena, eta kanpeonatun Legazpin ai zien jokatzek, eta orduen gaixotu zaniñen haure, anaixek neu hartu ta eaman nittun hara. Eztakit pa zenbat urte eukiko nittun, hemezortzin bat edo, holakon bat edo. Eta ordun han kanpeon erten genun.

## 7. Pilotan sakeko botea garrantzitsua

- **Erref:** AZK-023/007
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:12:02. **Bukatu:** 00:15:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

### Laburpena:

Luxianoren ustez berezkoa behar du izan pilotariak, erakusle eta botileroekin ez du federik. Argazkietan begiratuta ikusten zuen bere postura eta jokatzeko modua nolakoa zen. Pilotan, sakeko botea oso garrantzitsutzat jotzen du.

### Transkripzioa

-Maixun bat bazenduen bittarte hortan [...]?

-Ez. Hamen izeten da lagunek pelotan ta pelotan ein ta, maixue ta esan eitten dittue, ta bai, bai, ez da txarra izengo, txarra, baiña nik hola gehixei ez det sinisten erakuste kontu hoixekin, zeatik oin'e botillerue beti izen da erakusten egoten dana partidu inportantetan bestiei erakusteko sillen jarritte eoten da, botillerue esaten zako. Ordun nik ez det sinisten horrekin.

Nik beti esaten nun ba, botillero. Nik tanto bateatik bestiei emango nitxokek neure botillerue, beti hori esaten nun jokatzeko pelotan. Eta iñok ez zin ematen tantoik. Eta atzenin esaten nun: "bueno, lelengo sakia ematen badit, bixek bestientzat", eta orduen ez zien hori're ematen, eta asko ez du balixoko botilleruek. Erakustia ez da erraza, zeatik nik telebisixue ta argazkik, guk erretratuk esaten dixou, erretratuek izan ez balia, nik neuk nittun posturak eta ez nittun jakingo nola eitten nuen pelotan. Pelotan eitten zenula bai, baiña eittetiken ikustera nola itten zenuen alde haundixe dao. Ikusten baldin badezu pelotan nola eitten zuen, ba hain da zaille hola in ber dek eta hala in ber dek eta. Hori esaten erreza da. Zeatik hain erreza izengo baldin balitz, hola in ber dek eta hala in ber dek, on asko izengo litzeke, ta hor berezkue ber du zeoze, aittek eta amak ematen dizuena, handiken haundittu berko da jakinduri hori. Baiña erakutsi... Nik gauze bat, neri esango balie, zer erakutsiko hixoke, este, pelotari bati? Bat ikusten det garbi erakusteko modukua: sakatzera juterakuen, ikusten det botie itten alde haundixe daola hobeto sakau edo geizkixo sakatzeko. Batzuek itten didxoe botie haundigixa, eta haundigixa itten zakonien botia, zuk jotzeko lekutiken gorago juten baldin bada pelota haura, gero goitti behera plomun jatxi ber du harek, eta orduen goitti behera plomun jaixterakuan, pelotiek pixue're haundixaue ekartzen du, ta zuk eskuen jo ber dezun tokixen jotzen zaillo da pixu gehixao daukelako eta azkarrao etortzen dalako. Baiña eitten badixozu botia zeure jo behar dezun parekua, orduen pelotiak izeten du momentu bat geldiu itten dala leku hartan, eta gelditzeko momento hartan jotzen baldin badezu, askozez karga gutxixo eta ondo jotzen errezo da.

## 8. Pilotak nola egiten zituzten

- **Erref:** AZK-023/008
- **Iraupena:** 0:06:36. **Hasi:** 00:15:17. **Bukatu:** 00:21:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Aisia » Kirola » Pilota

### Laburpena:

Txapelketa batzuk aipatzen ditu. Orduko frontoiak asko betetzen ziren, pilotarako zaletasun handia zegoen eta. Pilotak motelagoak izaten ziren eta aurrerago jokatzeko zuten. Azkoitian Luxianoren osaba batek eta Txikitotarrak egiten zituzten pilotak. Luxianok eta lagunek ere egin ohi zituzten etxean. Pilotak egiteko ilea bustiz gero, pilota moteldu egiten zen eta bustitakoan labean sartzen zuten. Profesionalen pilotak deskribatzen ditu.

### Transkripzioa

-Orduan esan dezu partidua jokatzera joan anaiarekin eta irabazi egin zenuela.

-Irabazi ein gendun eta gero "Interdistritos" esaten zan hamen, zona batek bestien kontra, bestien kontra jokau eta gero izeten zan ba "Campeón de Gipuzkoa" ertetzen zun handik. Gehixena, ondona, gehixenak irabazten zittunak atzenin finala, gero "Campeón de Gipuzkoa". Haure etaa gendun eta hauxe izen zan nere hasieria.

-Nolakoa izaten zan orduko frontoia?

-Orduko frontoia earra izeten zan gaurkuen aldin. Zegatik afizionau jokatzeko ai giñela're jentie beteta kanpuen sartu eziñik eta egoten zan eta.

Ni gehixena hola tristuraik haundiña eman izen ditena da gero ikusi, geu erretiraute gero, ta beti pelotia jun ta pixka-pixkat bada´re bajau, bajau, bajau; ta ordun ikusten zenunien frontoiek hain jende gutxikin te [eta], pelotari onak jokatzan ai ziela, orduan apreziatzen genun gure sasoi en ze suerte izan gendun, hainbeste jente jutia.

-Garai baten orain baiño jende gehiago?

-Bai.

-Eta frontoia berak?

-Ba berak iguel samarrak zien. Bai ba. Ze gaur dabilten fronto(e) bat edo beste arreglaute egongo da; Eiber arreglaute do, Bergara´re bai, baiñe beste fronto(e) asko igualak segitzen dixoe ordun einda zeurenak. Gero berrin batzuk ein ein die, zeatik guk jokatzan genunien Donostixen Grosa zan eta gero berrixa ein ze ben, Anoeta, haure bota in ze ben eta. Ta ganbixo oso gutxi izen da frontoian, ganbixue izen da pelotakin. Pelotak daure ba askoz´e bizixauek, eta orduen lengo frontoiek hogeta hamalau metro, hogeta hamabost metrokuek errebotera, atzeko paretara oso gutxik etaatzen ze ben, pelotari batzuk sekule ez ze ben etaatzen, eta beste gutxi izeten zien etaatzen ze benak, eta gaur berriz pelota bizi hauekin frontoiek pixket ahal diela, ahal baldin badue, atzeatzen ai dia bizixak dielako eta edozeiñek etaatzen dulako atzea. Hor ganbixau da asko pelotak bizixauek [...].

-Eta pelotak nondikan edo zeinek egiten zizkizuen orduan?

-Pelotak eitteilliek ordun bazin, gure osaba bat´e bazan hamen Azkoittixen pelotak eitten zittuna, eta besteek pelotak eitten zittunak Barakaldon zan profesional eitten zittunak enpresantzat pelotak. Eta beste banakai batzuk´e, Txikito, Azkoitixen bazan bestia, Txikitotarrak´e, haixek eitten zittuen, eta pelotak eitteilliek beti izen die nik ezautu dittuten sasotik.

-Garestia zan pelota?

-Ba beti garestixe eta ordun garestiña, zeatik gu mutilkoskorretan ibiltzen giñen sasoi en hamen fabrike bat bazan harixe ta eitten zittuenak, eta nik ez dakit nolabait inguratzan genun hango hari-zaztarra edo zeoze, eta harekin geuk eitten giñuzan pelotak, ikisi giñuzan eitten, eta gero josi ta danak geuk eitten giñuzan.

-Zeuek?

-Bai, kanika barruan ipini pelotiai hots hobia etaa zeixen. Bazien, limonada esaten giñun guk, gaseosa, hamen fabrike txiki bat edo, tailler txiki bat bazan, eta harek honenbesteko botilla batzuk, txiki batzuek betetzen zittun gaseosakin, ta harek ematen zun bi presixukin ixteko behetik gora, kanike bat barrun, eta harek ixten zu. Eta haixek nundik topauko ibiltzen giñen, puxkatzen bazan botilla haura pelota eitteko harekin. Zeatik hots hobie etaatzen zun pelotik paretan jotzen zunian da [eta]; eta harekin.

-Eta besteek normalean materiala berdintsua erabiltzen zuten pelota egiteko?

-Guk ibiltzen genun pelota itteko bai, zeatik lania izeten zan, eta gero izeten genun txarrena izeten zan ba lana horrekin bustitzen bazan pelota moteldu eitten zan eta orduen etxea ekarri eta labien sartu eta atzea sekau berriz pelotaa zera eitteko, eta hola ibiltzen giñen. Baiñe beste pelota profesionalana diferentia da. Haure da ba lelengo goma bat. Hori estranjeritiken ekarriko ze ben, pentsatzen det, hamen ez dakit, [ez det] uste, latexa. Gero izen zan, baiñe horren aurretik beste goma bat, totxuek bezela holako pusketak etortzen zin, eta guraizekin ebaitzen ze ben mehe-mehe haure pelota eitten ze benak, eta gero mehe-mehe ebai eta tira haixek juten zien zera itten, pelotia bezela biribilla eitten. Eta orduan eitten zanian tamaiñe bat, ez dakit zenbat izengo zan, zenbat gramokue, zeatik zenbat eta haundixo haure ipintzen zan, pelota bizixao izeten da. Eta orduen tamaiñe bat harekin hartzen zixoen pelotie normala izeteko, gero

lana bat ipintzen zixoen flojuaua haren geiñetik, eta gero beste lana bat ipintzen zixoen ondiken tiesuo, fuertiaua geiñetiken, ba fuerte haure lotzen zixoen. Eta gero narrue ipintzen zixoen geiñetik hari, narro bat. Esaten zeben zala ahuntzena, ahuntzen narroa. Eta gero ahuntzen narro haure ebaitzen zeben "ocho" bezelako dibujo batien. Berak plaka batzuk bazauzkeben eta harekin ebaitzen zeben, bustitzen ipintzen zeben narru haura hobeto tirtzeko, eta ordun josten zeben, handik etaata. Eta gero gelditzen zan oso tieso. Eta gero hamen pixkatien ibiltzen zien biguntzeko, fronto kontzejupe hortan, oso ona zan pelotie biguntzeko, harrixe aproposa zegoen, oso suabie eta ona, eta han izeten zan pelotak preparatzia, gero ibilli zeixeben profesionalak edo pelotarixek.

## 9. Pareta latzak pilota harrotzen du

- **Erref:** AZK-023/009
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:21:53. **Bukatu:** 00:23:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

### Laburpena:

Frontoiko pareta zenbat eta latzagoa izan, pilota harrotu egiten du eta ez da ona izaten. Partiduetan praka zuriak eta gerriko gorri edo urdina eramaten zuten. Luxiano anaiarekin aurrelari modura hasi zen jokatzeko.

### Transkripzioa

-Harria esan dezu. Frontoiak behar du material espezialen bat hobeto jokatzeko?

-Ba hobeto jokatzeko ez, baiñe pelotie kargu eitteko bai. Zenbat eta paretan latzo (latzago) egon harrixe, narrua, edozer moduan, badakizu, jotzen badu latzien, harrotu eitten zako, eta orduen ez du, behar bezela ez da pelota ibiltzen, pelotiek gaiñeko narru haure behar du oso suabie bere tamaiñuan korridu daixen lurrien jotzen dunien, eta baldin badauke harrotuta narrua ba orduen gutxixo korritzen du, lurrek eutsi eitten dixo ta.

-Eta jazkera ta?

-Ba jazkera ordun zan zurixa dana, eta gero ibiltzen zan, diferentiek bi, parejak baldin bazien edo, manimano jokatzeko baldin bazan, ba ibiltzen zan zinturo bat, batek gorrixeko eta bestiek urdiña, gerrikua.

-Eta zuk anaiarekin jokatzeko hasi ziñenean, zer hasi zinen, aurrelari ala atzelari.

-Aurretik jokatzeko nun. Anaixek atzetik jokatzeko zun eta nik aurretik jokatzeko ekin nixon ordun. Bai.

-Eta anaiarekin denbora askoan ibili zinen, kanpora eta...?

-Bai. Kanpora ta bai. Gero pasau zikun ba, ikaragarritzeko zera pasau zikun, guri pasau zizkun gauze danak. Ba afizionauiek geundela ba dirue eskintzen ziguen; lelengo ez zan eze kobratzen, kanpeonatuten afizionau zabillela ez zeuen asko pagatzeik e ta. Neri beti eitten zien pagatzen, ez dakit zegatik, pagatzen ekin zien; txikixe nintzelako edo ez dakit zeatik; behintzet danetan ematen zien zeoze espeziela.

-Ona ziñelako?

-Bai zera ona, ona, artien ez nintzen. Artien, famie eman zien azkar eta asko, baiñe nik banekixen zenbateraiño nintzen eta horretxek salbau nittun.

## 10. Ospe handiegia ematearen kaltea

- **Erref:** AZK-023/010
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:23:57. **Bukatu:** 00:24:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

### Laburpena:

Behar baino lehen ospe handiegia emateak ekar ditzakeen kalteak.

#### Transkripzioa

Gaur deportien asko pentsatsen det galtzen diela bidian ematen zakuelako neri eman zien bezelaxe fama haundixe eman eze ez dan bittartin artin, eta berak sinistu haura eta orduan zaille da gero aurrea jutia. Behar du, zeu zenbateraiño zean jakin behar dezu lelengo zeoze izen behar baldin badezu. Eta pentsatzen badezu dana zeala, orduen gutxi aurrera eitten dezu.

## 11. Afizionatuek kobratzerik ez

- **Erref:** AZK-023/011
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:24:28. **Bukatu:** 00:26:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

### Laburpena:

Afizionatuek ezin zuten dirurik kobratu partiduak jokatzearatik eta federazioak alde egiteko edo bota egingo zituztela eman zien abisua. Luxianok eta beste hainbat pilotari ezagunek bota aurretik eurek alde egitea erabaki zuten eta enpresa ezberdinetan sartu ziren.

#### Transkripzioa

-Eta ordun ba behintzet han jokatzera juten giñen leku batera eta bestera eta bestera eta; dirue eskintzen zien eta ba profesionalak askok kobratzen zeben baiño gehixo iguel ematen ekin zien dirua, eta gero bestiek´e, neure lagunak eta ere kobrau itten zeben, danei pagatzen zigun, eta ordun aillegau zan momentu bat federazixuek eta ba kobrau eitten genula eta, itxurie dagonez reglamentuek esaten zun afizonaue baldin bazera ez daukazu kobratzeik. Eta guri dirue ematen ziguelako "vista gorda" ein zeben pixketien, urte bat edo bi edo hiru edo lau edo bost, eta gero atzenien ba erabai zeben ba bota edo geuk alde eitteko. Eta ordun onen samarrak [gendenak], oin Ezkurra remontien jokatzan dun Koteto horren aitte ta, Etxabe XI eta Del Val eta, hola onenak zeuren mordoxka bat erden ein genun, bialdu eingo giñuzen bestela eta. Eta hori ekin zixon, prensak´e asko ekin zixon horren kontra, eta izena ipini zixoen "marronismo". "Marronismo", ez dakit ze esan nahiko zun horrek, [...] hori ipini zeben eta ordun in ziuen ba bota baiño lehen geuk alde ein genun.

## 12. Pilota enpresak

- **Erref:** AZK-023/012
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:26:05. **Bukatu:** 00:29:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kirola » Pilota

### Laburpena:

<p>Luxiano Frantziara eta hainbat lekutara joaten zen pilotara eta enpresak bila joan zitzaizkion. Enpresetako partaide garrantzitsu batzuk aipatzen ditu.</p>

### Transkripzioa

- Eta batzuk sartu zin enpresatara. Enpresatara sartu zien ta; eta neri ez zizten etorri ordun momento hartan, baiñe nik bastante kanpo haundixe neuken, Frantzire juten nintzen, eta hamen herri askotan festatan-eta jokutzen nun, eta ordun ba anaixekin eta nebillen eta neuk artien ez nun pentsatzen pelotan asko eitten nunik, neuk banekixen zenbat eitten nuen, eta baneuken kanpo bat ona ta ordun ez nintzen atrebitzen enpresetaa juten. Enpresak ekin zien: "Benga, etorri ein ber dek eta, etorri ein ber dek eta!". Ez nintzen... Gero eskutik geizki ibiltzen nintzen beti, beti miñez eta geizki ibiltzen nintzen eta. Hango pelotak gogorrouek eta gauze danak eta. Ba ez nintzen atrebitzen juten. Baiñe urtiek pasa ta, urtiek pasa ta, urtiek pasa ta, ni konforme nebillen neure martxa hartan, eta egun batin, gero berak esan ziaben, ba enpresak etorri zizten baten baiño gehixotan abixuke "indirectamente", baiñe ez nintzen juten. Eta orduen batin, gero berak esan zien ze pasau zan, jokau nun Panplonan partidu bat bi-bittera, hamengo lagun batekin. Titin honen aitte eta Nalda, beste bat, eta pelotan ondo eitten zeuben, eta han zeuen partidu hori organizatzen eta Eiberko bat, Berrondo, ta hori zan enpresan da [eta] laguna, Eiberko Bidartena eta hoixena, eta orduen han partidua jokau nunin, harek abixau zixuela, berak esan zien, "joño! Ze eitten dezute mutil hori hartu be" edo hola, baiñe ordun urtietan aurrera nijun, ia baneuzken, hogeta zazpi urte pasaute neuzken, hogeta zortzire nijun, eta abixau zien bi enpresa etorriko ziela, Alberto Bidarte eta Joxe Mari Ugarte, Bergarakue zan bat eta bestia Eibarkua, "Empresas Unidas" zin, eta haixetakuek zin. Hoixek zin gehixen agintzen zeбенak.

-Zer izen zuen?

-"Empresas Unidas" zan, orduen zan, Bittorixen zan bat, bestie zeon Donostixen, Dublang, Efisio (Alty) Bittorixen, ta Ugarte Bergaran eta Eibarren Bidarte. Eta orduen abixau zien nerekin egon nahi zebela eta osabakin ia jungo nintzen bazkei bat eittea hamen, etorriko ziela Azkoittira ta. Pentsau nun, ba, bakarrik jungo nauk. Hala jun nintzen, baiñe ez nun pentsaute ez nintzen jun ba ingo nunik tratuik eta ingo nunik ez nun pentsau´re ein. Ba aittuko zabet eta. Hala jun giñen eta bazkaien ai giñen, eta bueno, "gureana etorri ber dek", eta "ez, ez", nik planteau nixon ze problema izeteko ikusten nittun neuk neure burukin, eta ez nijula arrixkatzera neuken kanpo hori, hara jun eta gero bate´e be gerau neikela dana galtzeko ta. Ezetzera ni, eta haixek "bai, etorri ein ber dek" eta. "Ez" eta. Esan zien atzenien ba. "Ze irabazten dek pa, urtien ze irabazten dek?", eta. Nik esan nixon ba, ez nekixen ze irabazten nun arrastoik.

### 13. Pilotan enpresan hasi zenekoa

- **Erref:** AZK-023/014
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:29:29. **Bukatu:** 00:34:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kirola » Pilota

#### Laburpena:

Pilota enpresakoek aurrez irabazten zuena baino gehiago eskaini zioten beraiengana jokatzera joateagatik eta bi urterako kontratua egin zuen. Eskuz banakakoa jokatzeko beste hainbesteko bat ordaintzen zioten. Anaiak atzera geratu ziren Luxiano enpresan hasi zenean. Kanpora jokatzera joandakoan taxian joaten ziren. Frantziako pasadizo bat kontaktzen du.

### 14. Frantziara pilotan jokatzera; mugan gertatutakoak

- **Erref:** AZK-023/015
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:34:44. **Bukatu:** 00:37:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Kirola » Pilota

#### Laburpena:

Partiduak jokatzera Frantzia aldera joaten zirenean, mugara baten bat joan behar izaten zitzairen bila, dibisen arazoren bat zela eta ez baitzieten pasaportetik ematen. Apaiz bati esker pasaportea atera zuenekoak kontaktzen du.

### 15. Frantzia eta Gipuzkoako pilotaren aldea

- **Erref:** AZK-023/016
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:37:25. **Bukatu:** 00:39:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

#### Laburpena:

Frantziako eta Gipuzkoako pilotaren ezberdintasunak aipatzen ditu. Montevideora joan zenekoa.

### 16. Osaba botilero

- **Erref:** AZK-023/017
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:43:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

- Aisia » Kirola » Pilota

**Laburpena:**

Barberito, Ogeta, Soroa, Tapia, Andueza... pilotari ezagunak. Afizionatuetan ez zuten saririk ere izaten. Osabarekin urte askoren aldea bazuen ere, bera izan zuen botilero.

**17. 15 urte profesionaletan**

- **Erref:** AZK-023/018
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:43:30. **Bukatu:** 00:47:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kirola » Pilota

**Laburpena:**

Profesionaletan 27 urterekin hasi eta 42ra arte aritu zen eta bakarka hobea zen. Bere garaiko pilotariak izendatzen ditu. Retegirekin gertatutako anekdota bat aipatzen du.

**18. Frontoietan apusturako joera**

- **Erref:** AZK-023/020
- **Iraupena:** 0:04:46. **Hasi:** 00:48:00. **Bukatu:** 00:52:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Pilota
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena:**

Frontoietan apusturako zaletasun handia zegoen, diru asko jokatzen zen. Jokoan galdu xamar egon zen lagun baten aipamena egiten du, eta pasadizo bat kontatzen du.

**19. Artekari eta botileroak**

- **Erref:** AZK-023/021
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:52:46. **Bukatu:** 00:54:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Pilota

**Laburpena:**

Artekarien lana zein izaten den azaltzen du. Anduezaren botilero izan zen, baina usadioa hala delako soilik, berak ez baitu federik botileroengan. Azkoitian 10 pilotari inguru ziren bere sasoian, baina osaben garaian 20 edo gehiago izango ziren.

## 20. Pilota uztearen zergatia

- **Erref:** AZK-023/023
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:56:45. **Bukatu:** 00:58:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

### Laburpena:

42 urterekin utzi zuen pilota; eskuetako arazoa izaten zuen eta utzi beharra tokatu zitzaion. Azkeneko partidua Bergaran jokatu zuen.

## 21. Soraluzen, kanoi-lantegian lanean

- **Erref:** AZK-023/024
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:58:14. **Bukatu:** 01:00:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

### Laburpena:

Gerra hasi zenean, lau urte zituen eta gose handia pasa zutela dauka gogoan. Arrandegia utzi eta abarketak egiten aritu zen lanean, Soraluzera joan zen arte. Soraluzen kanoi-lantegi batean hasi zen ofizioa ikasteko asmotan. Gerrarako kartutxoak neurrira jartzen aritzen zen.

## 22. Astea Soraluzen, eta zapatuan etxera

- **Erref:** AZK-023/025
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:00:50. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

### Laburpena:

Soraluzen lanean ari zela, astea bertan pasatzen zuen eta zapatuan bueltatzen zen oinez etxera. Pasadizo bat kontaktzen du.

## 23. Laneko lagunekin gertatuak

- **Erref:** AZK-023/026
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:02:30. **Bukatu:** 01:05:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

**Laburpena:**

Asteburuetan ez zen erromeriara ateratzen. "Sueltoan" bakarrik egiten zen dantzan. Lantegian 6 hilabete pasa ondoren ebentual lanean ari ziren 8 lagun etxera bidali zituzten. Lanean berarekin ibilitako lagun batzuekin gertatutako pasadizo bat kontatzen du.

**24. Zaku eta tela lantegian lanean**

- **Erref:** AZK-023/027
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 01:05:05. **Bukatu:** 01:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Pilota
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

**Laburpena:**

Pilotan hasi zenean lana utzi zuen. Pilotan zebilela, Epelde y Larrañaga lantegian ibili zen lanean eta lagunei ordaintzen zien bera partiduak jokatzera joaten zenean bere ordeztu lana egiteagatik. Pilotan baino diru gehiago irabazten zuen lantegian; zakua eta tela lantzen zuten.

**25. Partidu bateko pasadizoa**

- **Erref:** AZK-023/028
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:07:55. **Bukatu:** 01:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Pilota
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Pilotan diru dezente irabazten zuten. Afizionatu gisa zebilela, Donostiara partidu bat jokatzera joan eta kobratzerakoan pasatako anekdota bat kontatzen du.

**26. Soldadutzara Gasteizera**

- **Erref:** AZK-023/029
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 01:10:00. **Bukatu:** 01:13:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Pilota
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

**Laburpena:**

Soldadutzan, "excedente de cupo" zeritzona tokatu zitzaion, eta 3 hilabete eginda libratu zen. Gasteizen egotea tokatu zitzaion; eta, bitartean, partiduak jokatzen aritu zen kapitainari esker, laguna baitzuen. Irabazitako dirua, etxera

bueltatzean, amari ematen zion. Behin diru harekin etxean gertatutako pasadizo bat kontatzen du.

## 27. Ezkon-bidaian Valentziara

- **Erref:** AZK-023/031
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:14:10. **Bukatu:** 01:16:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

### Laburpena:

<p>Emaztea Azkoitian ezagutu zuen eta 28 urterekin ezkondu zen Loiolan. Ezkon-bidaian Iru&ntilde;ea eta Valentziara joan ziren. Valentzian osaba bat zuen eta berarekin egon ziren gotzaindegian. Lehengusu batzuek autoa bazuten eta haiekin ibili ziren Espainian zehar.</p>

## 28. Pilota munduaren aldaketa

- **Erref:** AZK-023/032
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 01:16:13. **Bukatu:** 01:19:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

### Laburpena:

<p>Lehengo eta gaurko pilotarien bizimodua eta pilota mundua alderatzen ditu. Bere pilotari gustukoena izendatzen du: Julian Retegi.</p>

## 29. Arriaran eta Akarregirekin pilotak aukeratzen

- **Erref:** AZK-023/033
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 01:19:42. **Bukatu:** 01:23:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

### Laburpena:

Arriaran eta Akarregirekin batera pilota aukeratzen urte askoan aritu zen eta gero bere ilobak hartu zuen kargu hori. Gaur ere pilota partidu batzuetara joaten da. Botilero modura hasteko askok eskatu dioten arren, ez du kargu hori hartu nahi izan.

## 30. Pilotako maisu bat

- **Erref:** AZK-023/034
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:23:30. **Bukatu:** 01:25:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kirola » Pilota

**Laburpena:**

Pilotak aukeratzen maisu aritzen zen bati buruzko azalpenak ematen ditu.

**31. Azkoitiko lehenengo etxeak eraikitzen**

- **Erref:** AZK-023/035
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 01:25:08. **Bukatu:** 01:28:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

**Laburpena:**

Garai batean etxe berririk ez zen egiten Azkoitian eta orduetik gaur egunera zenbat aldatu den aipatzen du. Lehenengo egin ziren etxeak Luxianok eta beste 15 lagunek egin zituzten elkarri lagunduta, 1961 urte inguruan, eta 105.000 pezeta ordaindu zuten. Orduko baserriak aipatzen ditu.

**32. Azkoitian abarketak, Azpeitian altzariak**

- **Erref:** AZK-023/036
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:28:40. **Bukatu:** 01:29:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

**Laburpena:**

<p>Azkoitian lan gehiena abarketekin egiten zen eta herri pobrea zen. Azpeitian altzariak ziren diru-iturri eta horregatik aberatsagoa zen. Azpeitiarrak ikasketak egitera erraz iristen ziren; Azkoitian, aldiz, diru-iturri urriak aukera gutxi ematen zuen horretarako.</p>

**33. Oiartzunen jatetxea eduki zuen**

- **Erref:** AZK-023/038
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:31:00. **Bukatu:** 01:33:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

**Laburpena:**

Azkoitik Oartzunera joan zen, han jatetxe bat eduki baitzuen 26 urtean, eta hango gaztelaniaz hitz egiteko joeraren aipamena egiten du. 66an pilotako txapeldun izan zenean, Oartzunera joan eta Mitxelena bertsolariak erretegia jartzeko ideia nola eman zion azaltzen du.

**34. Oihartzuna lanera**

- **Erref:** AZK-024/001
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:32

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

**Laburpena:**

Oihartzunera lanera joateko nola konbentzitu zuten kontatzen du. 28 urte eman zituen han. Semea ere jatetxean ibili zen lanean. Eta azkenean uztea erabaki zuten, bestela erantzukizun handiegia izango zela eta semearentzat.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-04-04*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com